Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5720

EBAZPENA, 2010eko azaroaren 5ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena. Honen bidez, handitu egiten da unibertsitateaz kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei egindako dirulaguntza-deialdian guztira zuzendutako zenbatekoa, hain zuzen ere ikastetxe horietako irakasleek 2010-2011 ikasturtean prestakuntza-ekintzak burutzeko egindako deialdiaren zenbatekoa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2010eko urriaren 6an emandako Aginduak (2010-10-22ko EHAA) 4. artikuluan ezartzen duenez, gehienez ere 620.000 euro zuzenduko dira. Artikulu horretan ezartzen denez, aurrekontuan guztira jasotakoa aldatu ahal izango da; horretarako kontuan hartuko da guztira zenbat laguntza eskatu diren eta aurrekontuak horretarako aukerarik ematen duen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko beste laguntza-programa batzuk exekutatu eta gero.

Ikusirik dirulaguntza-deialdi hori ebazteak dakartzan diru-premiak eta 2010eko urriaren 6ko Aginduko 4. artikulua (2010-10-22ko EHAA) betez, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Laguntza-deialdi horretako hasierako zenbatekoari 46.000 euro gehitzea; beraz, horretarako 666.000 euro bideratuko dira, guztira.

2. artikulua.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 5a.

Hezkuntzako sailburuordea,
M.ª ANTONIA OZCARIZ RUBIO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

5720

RESOLUCIÓN de 5 de noviembre de 2010, de la Viceconsejera de Educación, por la que se amplia el importe global destinado a la convocatoria de subvenciones para las Federaciones y Asociaciones con relaciones estatutarias o reglamentarias con Centros Privados Concertados de enseñanza no universitaria para la realización de Actividades de Formación del personal docente de dichos centros a desarrollar durante el Curso 2010-2011.

La Orden de 6 de octubre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación (BOPV de 22-10-2010), en su artículo 4, establece que se destina la cantidad máxima de 620.000 euros. En dicho artículo se establece que el total presupuestado podrá ser modificado teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayuda del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Vistas las necesidades económicas que genera la resolución de la citada convocatoria de subvenciones y en cumplimiento del artículo 4 de la Orden de 6 de octubre de 2010 (BOPV de 22-10-2010):

RESUELVO:

Artículo 1.– Modificar el importe económico inicial de la citada convocatoria de subvenciones, ampliando su cuantía en 46.000 euros, destinando a tal fin la cantidad total de 666.000 euros.

Artículo 2.– Contra la presente Resolución se podrá interponer recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en plazo de un mes, a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de noviembre de 2010.

La Viceconsejera de Educación,
M.ª ANTONIA OZCARIZ RUBIO.